



MATXIN ETA BERE LAGUNAK

ORIANA SUVJEY
ORTIZ VINDAS

IKERTZE

LEIRE URKIZU-K
ITZULIA

A mi hijo Samuel con mi más íntegro amor:
cada paso es una posibilidad y cada
respiración tuya es suficiente.



Goizetan, ohiturei jarraituz, enbor handitik gora igotzen da loreak usaintzera eta bihurrikeriak egiteko zein bide hartuko duen erabakitza.

Badaki kimu atera berriek oraindik ere lur hezearen usaina dutela, baina ez euria ari dueneko usain hori, gozoagoa eta oretsuagoa baizik. Biziki gustuko du bidexkak usaintzea eta jateko gozoak aurkitzea, jaki lurretik atera berriak topatzea, eta lagun onekin elkartzea, haiek ere elikagai onenen bila baitabiltza.

Usaimena zorrozteko ahalegin horretan, begiak itxi ditu lurrinak arretaz deszifratzeko; oinak irrist egin dio egurraren zirrikitu batetik, eta lurrazpiko mundu ezezagun batera erori da. Momentu horretan inurrien erromesaldia eten du. Txindurriek loreen petaloen jaki gozoak daramatzate ahoan. Uhin laranja, hori, gorriek Matxinen ahoan lerdea eragin dute, eta animalia txiki horiei jarraitzea erabaki du.

Gure lagun kilkerra oso urduria eta jostalaria da. Presa handiarekin intsektuen gainean jauzi egin du, jaki-festa hori non eskuratu duten galdetzeko, baina erantzunik ez du jaso. Jakin badakigu inurriak oso diziplinatuak direla, eta Matxin tematu arren, ez diote erantzunik eman. Jauzi bakoitzarekin estropezuak, kolpeak eragin ditu, eta baita zenbait lore birrindu ere, hortaz, berarekin haserretu dira. Zaindarien aurrera jarraitu dute modu txarrez.

Kilkerra, burumakur, pasabidearen ertz batera zokoratu da. Beldar lodi bat, oso lodi bat, inurrien atzealdetik doa, eta Matxinengana hurbildu da, zuzen eta goxo. “Eh! Matxinsalto! Jarraitu egin beharko zenituzke, horrela, ibilbidea zein den jakin dezakezu, bihar ere bide beretik joango baitira. Eta gainera... eskerrik asko, eragin duzun hondamendiarengatik! Egunak neramatzan aterpean ezkutatuta, behar adina jan eta krisalida bihurtu ahal izateko, eta inurriek utzi didaten opari honekin, zuriuuuuu esker, gaur bertan hasiko naiz nire eraldaketarako toki baten bila. Zorretan nago zurekin!”. Matxinek arretaz entzun dio, eta poztu da, nahi gabe, bere lagun berri tximeletari lagundu diolako. Horretan pentsatzen ari da, enbor barneko erromesaldira bueltatu bitartean.



Pausua azkartu du, baina ez bidezidorrarekin liluratzeko beste, inoiz ez baita lurrazpiko mundu horretan ibili, eta jakin-min handia sortzen dio. Errekatxo urdin batetik igaro da; zirrikitu batetik begiratu, eta bere susmoak egiaztatu ditu! Ur horietatik iratxoen ur-jauzira iritsiko da. Badaki, aurrerago entzuten diren barre finengatik.

Asun-tximeleta baten hegaldatzeak erakutsi dio gainazalera irteteko zulo bat. Pixka bat aurrerago, huntzak ingurunea estali du eta amona mantangorri berezi batzuen gordeleku bihurtu da. Haiengana hurbildu da, soinuak erakarrita. Baina burua kanpai itxurako kala lorean sartu duenean, haize bolada batek esnatu du. Eta arriskuaz jabetuta, presa handiz aurrera jarraitu du, nahiz eta nekeak ez utzi naturaltasunez aurrera egiten. Harrituta, zer gertatzen ari zaion antzematen saiatu da; badirudi hankatxoetan likido likatsu bat itsatsi zaiola eta horrek bere mugimendua moteltzen duela. Garbitzen saiatu da, baina gehiago lokaztea baino ez du lortu.

Hala ere, aurrera jarraitu du, marmarka. Lokatzetan sartuta dagoen enborraren zati batera iritsi da, eta han hainbat begi distiratsu daude bere zain. Beldurrak airean, oihu egin du, laguntza eske. Lur hezeetan harrapatuta geratu denez, paraje ilun eta goibel batera iritsi da. Han argizko izakiak bizi dira, eta denek batera galdetu diote: “zer gertatzen zaizu?, zergatik zaude horrela?, nola gertatu zaizu?” , eta ahotsak oihartzunaren bidez zabaldu dira.

Gure laguna hitz egiteko prest sentitu denean, honako hau esan du negar-zotinka: “nik soilik inurriei jarraitu nahi nien! Eta oso ongi ez dakidala haiengana iristea eragozten didan likido honetan murgildu naiz, eta gero hona erori naiz, zuengana, eta ziur jan egingo nauzuela eta dagoeneko ezer ez zait axola...” . “Lasai, kilker, guk lurra baino ez dugu jaten. Baina zorte handia duzu! Zure barneko urek aipatu duzun likidoa kendu dizute, baina ez zara konturatu, gurekin hizketan ari zinelako” . Hitz horiek entzutean, esan diotena egiaztatu ahal izan du; algara handiak eta besarkada beroak eskaini dizkie lagun berriei.



“Baina esan iezadazue, lurra jatea atsegina da?”, “noski baietz, Matxin, gu geuk lantzen dugu. Etor zaitez gurekin probatzera”.

Negutegi itxura duen toki batera iritsi dira; lur biltegi ugari daude han, eta idatzita daramate zein datatan prestatu diren, osagaiak eta zaporea. Matxinsaltoak, mesfidati, pasillo guztiak zeharkatu ditu, zein probatuko duen erabaki aurretik. Usain ona duen ontzi bat topatu du; begiak itxi, ezpainak ireki eta mokadutxo bat hartu du. Poliki-poliki murtxikatu du, eta, liluratuta, nahasketa urtsua jaten hasi da, aurreko bi hankatxoekin. Lagunek irribarre egin dute atsegin handiz, bisitaria gustura egotea lortu baitute.

Kilkerra enborrera bueltatu da, begi distiratsuek lagunduta eta bidaiarako lur-poltsa pare bat dituela. Agur esan eta inurrien bila joan da. Eguzki-izpi batzuen berotasuna nabari du. Jakin-min izugarria du gainazalera ateratzeko.

Atera den lekuan, hain zuzen, bere senitartekoen talde bat kontzertu gozo bat eskaintzen ari da, eta, bizkor, gure lagunak eztarria garbitu du, eta haiengana joan da. Abesbatzan sartu dute; soinuen arkitektoak jarraitu beharreko notak erakutsi dizkio, eta haiei jarraitzeko gonbitea egin dio. Eskertuta, kilkerra kantatu zirrarakorri horren liluran murgildu da.

Melodiaren bidez, hostoetako ihintza aireak xurgatu du, horrela hezetasuna txoko guztietara heldu da eta elikagaiak etengabe ernatu dira.

Doinu horien ostean egarriturik, Matxin itzal bila joan da, eta enborreko ibilbideari ekin dio berriro ere. Zortea izan du. Oso gertu ur-jauzi baten hotsa entzuten da, jarioarekin harri-txintxarrak altxatzen dituen ur-jauzia.



Han egarria asetzeaz gain, aurkikuntza garrantzitsu bat egin du: han zeuden inurri desiratuak. Pentsatu ere egin gabe, korrika hasi da haiek harrapatzeko asmoz, eta haiekin topo egin aurretik, geldik geratu da, zalantzaz beterik. Inurriekin hitz egin nahi du, baina gogoan ditu azken gertakariak, beraz, nahiago du geldik egon eta nola jarrai ditzakeen aztertu. Ehunka inurri beltz dira, negurako elikagaiak pilatzen dituzten horietakoak.

Magal batean, orratz baten zabalera duen zulo batetik, ur-jauziaren atzealdean dagoen harrizko leizean sartu dira. Gure laguna zain geratu da, aharrausika, azken inurria sartu arte, haren atzetik segidan sartzeko. Lanak kontu handiz egiten dituzten arren, ez dira konturatu matxinsaltoa han dela, uraren hots handiaren erruz.

Gordeleku horretan jaki gozo ugari dago, baita Matxinek hain gustuko dituen lore petaloak ere. Baina badaki momentu horretan janari gozagarri horiek ezin dituela hartu, eta, beraz, mokadu txiki batzuei heldu eta gertuan hartu du aterpe, gaua igarotzeko eta hurrengo egunean bere ninja misioarekin jarraitzeko.

Leizetik atera denerako, iluntzen hasia da, eta konturatu da lehen aldia dela etxetik urrun lo egiten duela, izan ere, orain arte ez du pentsatu ere egin bere familiarengandik zein urrun dagoen eta zer egingo duen bueltatzeko. Sentimendu horiekin guztiekin bete zaio bihotza, eta malko bidez hustu beste aukerarik ez du izan. Atsedean hartzeko zenbait hosto eta goroldio jarri ditu; lurraren gainean etzan, eta izarren distira liluragarriak bakea ekarri dio, eguzkia atera arte.

Nostalgiaz beterik eta nahasi samar esnatu da, baina berehala gogoratu du bere egitekoa, eta zutik jarri da nahiko baldar. Azkar iritsi da leizearen ondora, eta berak uste bezala, ilarak osatuta daudela ikusi du. Atzo bezala, azken inurria jarri arte itxoin eta, kontu handiz eta itxaropenez beterik, haien atzean jarri da jauzika.



Aurreko eguneko toki berberak zeharkatu ditu, baina oraingo honetan ezagunagoak egin zaizkio. Nostalgia handiz gogoratu ditu kilker kantariak; begi distiratsudun lagun berriak agurtu ditu; huntzaren adar amaigabeak eta amona mantangorriak laztandu ditu; asuntximeleten hegaldiaz gozatu du, eta barre egin du iratxoaren putzuko algarekin. Bere etxetik pasa da, eta, itzultzeko gogoari eutsiz, bideari jarraitu dio.

Harri batzuk zeharkatzean, bihotz-dardara sentitu du..., gertu dago, badaki eta hala da. Momentu horretan, txoko guztiak lorez beteta dituen toki batean dago. A zer nolako zirrarara! Ez daki nondik hasi, ez daki nora begiratu eta ez daki zein lore usaindu lehenengo. Eta berriro ere malkoak atera zaizkio, baina oraingo honetan zoriontasun-malkoak dira.